

HANDIENA

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña – Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Haundiena, inor bezala. Luzea da zure itzala, Itzela!!

Mila borrokatan hezia, hazia
Duintasun beltzaren hazia, hazia
Inoren gatibu izan ez zara, Cassius jaioa, orain Muhammad,
Inork ezin lotu zure bizitza, inork ezin segi zure oinen dantza.

Hiru minututan zutunik, mila round,
Orduan inoiz ere knock out, nola gaur?
Louisvilleko tximeletak darrai, hegan egiten momentuaren zai,
Mugimendu arinei ezin ihesi, erlearen zizta dasta!

HAUNDIENA, INOR BEZALA. LUZEA DA ZURE ITZALA
ARGI BATEN AZKENENGO DARDARAN, BIZITZAREN AZKEN LIZKARRAN.
GOGORA EZAZU EGIA DALA, ERREGEAK IZAN GINALA,
BATEZ ERE ZURE BIZITZAN ETA, HAMABI SOKETAN IZARRA.

Don't let me down, orain ez etsi, eutsi.
Puntuetara irabazi, eutsi.
Louisvilleko tximeletak darrai, hegan egiten momentuaren zai,
Mugimendu arinei ezin ihesi, erlearen zizta dasta!

Haundiena, inor bezala. Luzea da zure itzala
argi baten azkenengo dardaran, bizitzaren azken lizkarran.
Gogora ezazu egia dala, erregeak izan ginala,
Batez ere zure bizitzan eta, hamabi soketan izarra.

DENBORA

Hitza: Iker Uriarte

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña – Unai Lobo – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Gure bizitzaren bidean heriotzaren beldurra
Askorentzat aurrerakuntza jakintzak dakarrena da
Iluntasunaren atzean argitasuna bizi da
Gaztetasunak dakarkigu eboluzioaren sua.

Pasatzen diren segunduak, gorriak ala berdeak
Zoriontasunean jarriak helburu indibidualak
Zahartasunaren jokua gaztea kontrolatzea
Begietan daukate jada deabruaren ditzira.

DENBORA, GEROA, IRAGANAREN OSTEAN
BIZITZA, BIDEAN, ETENGABEKO MAKINA
DENBORA, GEROA, IRAGANAREN OSTEAN
HERIOTZA, BIDEAN, SORKUNTZAREN MAGALEAN.

Zintzotasunaren itzala, justiziaren negarra

Segunduak pasatzen dira, sua itzaltzen dihoa
Bizitza aurrera bagoaz etengabeko bidaian
Iraultza aurrean daukagu ez dezagun aukera gal.

DENBORA, GEROA, IRAGANAREN OSTEAN
BIZITZA, BIDEAN, ETENGABEKO MAKINA
DENBORA, GEROA, IRAGANAREN OSTEAN
HERIOTZA, BIDEAN, SORKUNTZAREN MAGALEAN.

BADIRA

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Badira inoiz ezagutuko ez ditugun begiak,
ibiltzeke geratuko diren bideak.
Esnatzeke diren goizak, amestaraziko nauten irriak,
oraindik ere geroan direnak, urrun.

Badira zapaldu gabe urtuko diren elurrak,
esan gabe geratuko diren gezurrak.
Inoiz ulertuko ez diren ezinezko amodioen zenbat kanta,
atzetik pasatuko zaizkigun aukerak.

ETA EZ DIRA ZURE IRRIA BEZAIN
ARGIAK. EZ DIRA IZANGO INOIZ
ETA EZ DIRA, ZURE BEGIAK DIREN
EGIA, ETA EZ DIRA IZANGO.

Badira izarretan idatzita dauden mezuak,
euripean amaitzen ez diren agurrak.
Goiza helduko denean, izkutatuko zaizkigun ametsak,
guretzat idatzi izan ez diren lerroak.

ETA EZ DIRA ZURE IRRIA BEZAIN
ARGIAK. EZ DIRA IZANGO INOIZ
ETA EZ DIRA, ZURE BEGIAK DIREN
EGIA, ETA EZ DIRA IZANGO.

BIZITZARI TXISTUKA

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Garena, penak eta ametsak,
Haizeari kantatzean, arintzen zait arima.
Ta ez pentsa, nirea bezala,
Hemen eta munduan, milaka arindu dira.

Pertsonia bitxiak bizitzari txistuka,

Arruntasunaren heroiak.
Eta itotzen gaituen egunerokotasuna,
Jada esagutzen ez duguna.

UTZIDAZU KONTATZEN, BADAUKAT ZERBAIT ESAN ETA,
MUSIKAREKIN JANZTEKO.
UTZIDAZU KANTATZEN, ILARGIPEAN DANTZATZEKO
SKA, REGGAE EDO ROCK&ROLL.

Galderak, gehienak ederrak,
Erantzunik gabe ere geratzen direnak.
Haizeak ez lituzke eramango amodiozko hitzak
Norbaitek idatzi izan balitu abesteko.

Utzidazu kontatzen, badaukat zerbait esan eta,
Musikarekin janzteko.
Utzidazu kantatzen, ilargipean dantzatzeko
Ska, reggae edo rock&roll.

PEEP SHOW

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

*Itzali zure burua! Put Off your head! This is entertainment! Mundua atzamar
baten kontrolpean!*

Mila kanale, mila seinale! Sakatu Botoia! Bizitza TB!!

Ongi etorri ladys, gentlemen
Bizitzaren espektakulura.
Asetu hemen zure cool-tura
Self-service antikulturnalean
Answer, question, big suggestion!
Gure berrien zai bizi zara.
Gezur gordinak fast-food eginak
Show must go on! Bizimodu bat da!

SHOW!! BETI PANTAILARI SO, YOUR LIFE IS A PEEP SHOW
ITZALI TELEBI ¡STOP!
BETI PANTAILARI SO, YOUR LIFE IS A PEEP SHOW.

Call now! Just now! Ez baztertu
Gaueko eskaintzarik bereziena,
Zorion puxkak saltzen ditugu
2667 telefonoan.
Unbelievable real worlds
Zu zeu zara ispilu barnean
Itxi begiak, lasai amestu
Ta hementxe bihar ordu berean.

SHOW!! BETI PANTAILARI SO, YOUR LIFE IS A PEEP SHOW
ITZALI TELEBI ¡STOP!
BETI PANTAILARI SO, YOUR LIFE IS A PEEP SHOW.

CON EL SOL

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

SWEET MARY

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Maria izena jarri zion aitak
Monjetan egin ditu ikasketak,
Erizaina izango da ama bezala
Herriko elizan eskonduko da.

Baina Mariak baduka etxean
Kontatuko ez duen sekretua
Hasi da abesten orain dela gutxi
Montatu duten ska taldean.

DANTZAZAZU! SWEET MARY!
DANTZAZAZU! SWEET MARY!

Ailegatu da berriro astelehena,
Gona laukidun uniformeak,
Noiz iritsiko berriz ostirala
Berriz abesteko lokalean.

Baina Mariak badauka etxean
Jantziko ez luken beste jantzia,
Ska laukidun tiranteak eta
Marteen's botak erosi berriak.

DANTZATZEKO! SWEET MARY!
DANTZATZEKO! SWEET MARY!

Baliteke inoiz ez ibiltzea
Berarentzat zeukaten bidea,
Ta agian mantal txuria soineko
Beltz batengatik aldatzea.

Baina Mariak badauka etxean
Afalorduan esatekoa,
familia aurrean arituko dela
herriko jaietan kontzertuan.

DANTZAZAZU! SWEET MARY!
DANTZAZAZU! SWEET MARY!

IRRATITIK DEIKA

Hitza: Iñaki Ortiz de Villalba

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Unai Lobo

Editoriala: Boza Ediziogunea

Irratitik deika munduko bazter guztietara
Musikak astindu dezake hiri ta herri osoak
Irratitik deika gizakiaren bihotzetara
Abestiek behingoz salatzen dute gure mixeria.

JOE, RUDIE CAN'T FAIL! JOE NON ZAUDE!
JOE, RUDIE CAN'T FAIL! JOE NON ZAUDE!

London calling to combat rock!
Granadan gogoan Spanish bombs!
Sarifek egun, ez du dantzatzen rock in the kasbha
Sandinoren mezua eta herri zapalduen ohiauak
Esnatu zituen behintzat batzuen pentsamenduak.

JOE, RUDIE CAN'T FAIL! JOE WHERE DID YOU GO?
JOE, RUDIE CAN'T FAIL! JOE WHERE DID YOU GO?

Milaka istorio, milaka lagun, milaka abesti
Milaka kilometro, milaka amets, milaka bizipen
Milaka eztabaida, milaka malko, milaka irrifar
Mila sugarrek argitzen dute zukutzitako bidea.

90 MINUTU

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Nola bueltatzen diren batzutan
Galduak nituen zirrarak.
Kartoizko kutxa zahar batean
Agertzen den iragana.

Klase partikularretan goizak,
Igerilekuko arratsaldeak,
Parkeko bankuan gauerdiak,
Amaitzen ez ziren udak.

Txanpon batekin mila partida extra,
Azken pantaila pasatzeko beste aukera,
Aurilkular laranjetan soinu-banda,
Garai bateko bizitzeko era.

AURKITU DITUT NIRETZAT GRABATZEN ZENITUEN
LAUROGEHITA HAMAR MINUTUTAKO ZURE ZINTAK
USAINDU DITUT BERRIRO URTE HAIETAKO UDAK

LAUROGEHI TA HAMAR MINUTUTAKO ZURE ZINTAK.

Kotxez hustu egiten ziren auzoak,
Erdibana azken zigarroak.
Dirurik gabeko asteburuak,
Markarik gabeko zapatilak.

Tabernako telebista berrian
Koloretan Espainiako mundiala.
Walkman batean sar daiteken poza
Zinta bat dena denean.

AURKITU DITUT NIRETZAT GRABATZEN ZENITUEN
LAUROGEHITA HAMAR MINUTUTAKO ZURE ZINTAK
USAINDU DITUT BERRIRO URTE HAIETAKO UDAK
LAUROGEHI TA HAMAR MINUTUTAKO ZURE ZINTAK.

JUNGLE

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Jungle! Bizi naizen lekua
This is the jungle! Bertan harrapatuta
My pretty jungle! Sentitu ezak barnean
I need my Jungle! Jakin behar duk zer dan
But in this Jungle! Hiltzen zaren artean
Singular Jungle! Jainkorik ez zeruan
Excuse me Jungle! Inoiz zure mepean
Good bye my jungle! Inoiz arte maitia.

I WANT, I CAN, I NEED, I KNOW I HAVE TO KEEP
THAT THING THAT I PROMISED, AND THAT NOW YOU WILL SEE
I WANT, I CAN, I NEED, I KNOW I HAVE TO KEEP
THAT THING THAT I PROMISED, I'M GOING FULL SPEED!

Jungle! Bere gonbidatua
Business of jungle! Ezertan aditua
Exciting jungle! Zer dira eskubideak
Expensive jungle! Non da nire dirua
Jungle! Batzutan maitemina
Stupid jungle! Bestetan hain ergela
Jungle! Irtengo naizenean
Try again jungle! Malkorik ez haizean.

MINGERING MIKE

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

R&B, Soul diskoak,
Binilon LP-ak, singelak,

Diseinuzko azalak.

Audio Andre-ren laguntzaz
Stereo grabaketak etxean
Disketxe bitxiak.

Dena prest izango da
Momentua heltzean, geroa
musika beltzean.

Hor izango duzue
azken lelo berri bat abesten
guettoko printzea.

MINGERING MIKE, IZAR BELTZEI BEGIRA
MARGOTU ZURE DISDIRA MINGERING MIKE
UME BATEN AMETSEZ BLAI, KARTOIZKO SOUL IZARRA
GURETZAT ABESTU MINGERING MIKE.

Beste sari berri bat
Aurten berriro izan da zurea
Urteko arrakasta.

Luxuzko edizioak
Inolako oparirik gabeko
Bizitza batentzat.

MINGERING MIKE, IZAR BELTZEI BEGIRA
MARGOTU ZURE DISDIRA MINGERING MIKE
UME BATEN AMETSEZ BLAI, KARTOIZKO SOUL IZARRA
GURETZAT ABESTU MINGERING MIKE.

BALITEKE

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Ediziogunea

Sargoriaren osteko
Udako ekaitzen usainaz,
Aire apur bat erosteko
Atera naiz zureminaz.

Hiriaren erritmoa
Anbar kolorekoa
Zuribeltzean oroimenak
Filma onen antzera.

Baina baliteke berriro
Atzoko leku berdinean
Nahi gabe edota nahiean
Zu topatzea.

HASIA DA IZKUTATZEN EGUZKIA
BUELTAN DIRA NIRE ZALANTZA GUZTIAK
IRTENGO NAIZ ATZOKO ALTXORRAREN BILA?
NIRI BEGIRA ZEUDEN ZURE BEGIAK.

Bilatzen aritu naiz baina
Ez zeuden atzoko lekuan
Gaur ez dut inondik topatu
Aingerurik bidean.

Nondik aurkitu zaitzaket,
Nola da zure izena,
Zergaitik zeunden hondoan
Atzo niri begira.

Baina baliteke berriro
Atzoko leku berdinean
Nahi gabe edota nahiean
Zu topatzea.

HASIA DA IZKUTATZEN EGUZKIA
BUELTAN DIRA NIRE ZALANTZA GUZTIAK
IRTENGO NAIZ ATZOKO ALTXORRAREN BILA:
NIRI BEGIRA ZEUDEN ZURE BEGIAK.

LUZIO

Hitza: Iñaki Ortiz de Villalba

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Unai Lobo

Editoriala: Boza Ediziogunea

Besteen ametsak konpartitu zituen
Batzuen borroka berea egin zuen
Frankisten kontra faxismoaren kontra
Mugak gaindituz, sentimenduak elkar banatuz.

Beti itzalean, beti ixilean
Beti lanean, betiko jarrera berean
Nafar azkarra, zainetan zuk sugarra
Sahiestu nahian zapalduen negarra.

Solidario eta anarkista
Errotik antinperialista
Erresistentzia internazionala
Bultzatu zuen inork bezala.

AMETS BAT DUGU GUZTIOK, AMETS BAT ZUEN LUZIOK.
AMETS BAT DUGU GUZTIOK, AMETS BAT ZUEN LUZIOK.

Zure balioa, benetakoa da
Falzifikaezina, ez beraiena bezala

Bihotz zabala, gordeta dugun bala
Ez da makala, zauritzeko banka mundiala.

Solidario eta anarkista
Errotik antinperialista
Erresistentzia internazionala
Bultzatu zuen inork bezala.

AMETS BAT DUGU GUZTIOK, AMETS BAT ZUEN LUZIOK.
AMETS BAT DUGU GUZTIOK, AMETS BAT ZUEN LUZIOK.

LO

Hitza: Unai Lobo

Musika: Aitor Agirre – Benjamin Villabella – Iosu Izagirre – Mikel Sanz – David Gabiña
– Iker Uriarte – Iñaki Ortiz de Villalba

Editoriala: Boza Edizilogunea

Nire irrifarra bihar
Ispiluan falta bada,
gehien behar zenuenean,
Baliteke bapatean
Hainbeste itzalaren aurrean
ihesean joan izatea.
Baliteke bapatean
Hainbeste itzalaren aurrean
ihesean joan izatea.

Nire izkutalekuan,
Bueltan datorren artean,
Egongo naiz amets batean.
Saiatuko naiz lokartzen
Ekaitza ez badut entzuten
Gainetik pasatzen denean.
Saiatuko naiz lokartzen
Ekaitza ez badut entzuten
Gainetik pasatzen denean.

ESNATU NAZAZU, TRUMOI HOTSA
ALDENTZEN DENEAN,
LO BANAGO, EGUNA ARGITZEAN.
ESNATU NAZAZU, EGUZKIA
HODEIEN ARTEAN AGERTZEAN,
AMETSEN ETXEAN.

Ta ez badut atzo bezala
Pasatzen orain artean
gure zubia izan ohi zena,
Laguntza eskatu ezean
Jakintzazu zure irria
Ongi etorria izango dela.
Laguntza eskatu ezean
Jakintzazu zure irria
Ongi etorria izango dela.

